

uraren lenentasunaren ondoren  
aintzinaran urdinaren menpeko izan zena berdea bilakatzeko asmoz  
naturak

2

lehendabiziko haziaren landare loratuaren fruituak lau haizetara hedatuz  
lurraren bandera  
izarren agindupeko eguratsetara luzatu zuen

hegal eta aldapa guziak  
belar basaberan eta anitz motatako zuhaitzez bete zirenean  
lurrean piztiak ugaritu ziren  
eta zeruko laberintoak milaka hegaztiz josiak geratu ondoren  
eguzkiak  
oro argitu zuen

eguzkiaren ezin besteko itsasoratzearekin  
lehen gizakiak  
gauaren monotonia beltza urratuz  
urrezko hilargi betseri zuzendutako ongiestorria bailitzan  
su luze bat izarreratu zuten

druida bizar zurien  
neurri gabeko misterio miuratsu eta belartsuen jakinduria  
ehundaka urtez  
bertako baso zabaletako trikuharrien  
ezagutza sekretuen jarioan oinarritu zen

milaka urtez armonia osoz iraun ondoren  
mendi horietako gizakien naturarekiko loturak deuseztatu ziren  
ehizaren murriztea eta urruntzea zela medio  
eta ondorio gisa  
ehiza leku emankorragoen usainean  
betiko baso ilunetatik urrutiratu ziren

bakartateak suntsaitutako  
adobezko jauregi mesopotamiar solemne baten gisara  
mendi eta baso horiek  
luzaro ahaztuak izan ziren

mende anitzen ostean  
meategi zilartsuen lilurak eraginda  
itsasoaren hodiartzean  
agerpen mirakulutsuen modura  
zilarraren benetako existentzia frogatuko zuen erromatar inperioko  
untzidi handi bat agertu zen

ondorioz  
iragarri goibelen eskarle bailiran  
ehundaka atzeritar estrainio itsaso aldetik etorberriak  
beraien poz eta minak bertan finkatzeko asmoz  
oppidum bat eraiki zuten

zilarrez mukurureino zamatutako pontzadun untiak  
metropoliruntz bideratzen ziren artean  
esklabu malerus anitzek  
zurezko aldemiaiaz hornitutako infernu zulo ustelgarrietan  
bere gorputza kixkaltzen zuen